

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

145/2017 Foru Agindua, maiatzaren 19koa, behin betiko onartzen duena, zenbait baldintzarekin, Lantziegoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 4. aldaketa puntualaren espedientea, Lantziegoko lurzoru urbanizaezineko 5. poligonoko zenbait lurzatiren kategorizazioa aldatzeari buruzkoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Lantziegoko Udalak, 2016ko martxoaren 2ko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 4. aldaketa puntualaren espedienteari, zeina lurzoru urbanizaezineko 5. poligonoko zenbait lurzatiren kategorizazioa aldatzeari buruzkoa baita, eta espediente jendaurrean jartzea, ALHAOn (31 zk., 2016ko martxoaren 16koa) eta El Correo egunkarian (2016ko martxoaren 10ean) iragarkiak argitaratuz.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, Udalak, 2016ko azaroaren 24ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 203/2016 Foru Agindua bidez, zeina 2016ko urriaren 3ko ALHAOn argitaratu baitzen (111. zk.), ingurumen txosten estrategikoa eman zen, 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeanamenduko Atalak uztailaren 15ean egindako 1/2017 bilkuran, ez zion eragozpenik ipini espedienteari, lurralde antolamenduaren arloari dagokionez, eta URA agenziaren txostena ere atxiki zuen, 2017ko otsailaren 2koa, eta bai ere Natur Ingurumen eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren 2017ko otsailaren 3ko txostena ere.

Bosgarrena. Lantziegoko Udalak espediente bidali zuen, behin betiko onartua izan zedin. Espediente hori 2017ko martxoaren 7an sartu zen AFaren erregistro orokorrean.

Seigarrena. Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betez, espediente horren gaineko txostena eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak, 3/2017 bilkuran, maiatzaren 8an.

II. OINARRIAK

Lehena. Espediente hau Lantziegoko Udalak sustatua da, eta beraren xedea da indarrean dagoen Lantziegoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren proposatzen duen lurzoru urbanizaezinearen kategorizazioa aldatzea udalerriko 5. poligonoko zenbait lurzatitan, zeinetan zatirik handiena upategi batek eta mahastiek hartzen baitute, oraingo egoera fisikoari egokitzearen.

Zehazki, lursail batzuen kalifikazioa aldatzea da asmoa, orain arte laborantza lursailak izan baitira, eta egun "basogintzako interesa duen zona babestuan" baitaude, eta, aldatu ere, "nekazaritza-abeltzaintzako interesa duen zona babestu" izendatzeko.

Bigarrena. Agiri teknikoak badakar planeamendua egungo errealitate fisikoari egokitzeko beharrezkoaren justifikazioa, lursail horien bokazioa nekazaritza baita, eta, horri begira, kontuan hartzen du horretarako izapidetu den ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduran adierazitakoa. Horren ondorioz, upategi jada eraikiak ez du ageri bat ez etortzerik planeamenduarekiko.

Hirugarrena. Agiria aztertu ondoren, ustea da behar bezala justifikatu direla aldaketa kome-nigarria izatea eta haren legezotasuna.

Laugarrena. Ingurumen Deklarazio Estrategikoan, zeina Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak eman baitzuen 222/2016 Foru Aginduaren bidez, hura 2016ko urriaren 3ko ALHAOn (111. zk.) argitaratu zelarik, hainbat oharpen ematen dira "Basogintzako interesa duen zona babestuaren" kategoria proposatuaren zonifikatzea "goraka" berrikustearen inguruan, eta bai ere lurzatiaren eboluzio historikoaren analisi xehatu bat egitearen inguruan eta ingurumen ebaluazio estrategikoan proposatutako ingurumen adierazleak hirigintzako dokumentura aldatzearen inguruan ere.

Hirigintza dokumentuan jaso da ingurumen adierazpen estrategikoan ezarritako guztia, salbu gauza bakarra:

– Nahiz eta egiaz berrikusi den "goraka" basogintzako interesa duen zona babestuaren" kategoria proposatuaren zonifikazioa, ez da P-1M planora aldatu memoriaren 7. idatz-zatian proposatutako zonifikazio berria, zehazki, 1713 eta 3106-A lurzatiaren zonan, 1713 lurzatiaren ondoan.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenena. Behin betiko onartzea Lantziegoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 4. aldaketa puntualaren espedientea, lurzoru urbanizaezineko 5. poligonoko zenbait lurzatiaren kategoria aldatzeari buruzkoa, honako baldintza honekin:

– P-1M planoaren egokitzea memoriaren 7. atalean proposatutako zonifikazio berriari, zehazki, 1713 eta 3106-A lurzatiaren zonan eta haren ondoko 1713 zonan.

Bigarrenena. Aipatutako aldaketa ez da funtsezkoa. Beraz, hura zuzendutakoan, espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, jendaurrean jartzeko izapide berri baten beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, eginbideak egin ditzan eta argitara dezan.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 19a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO